PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO IBILGAILUAK ERREGAIZ HORNITZEA ETA AUTOBIDEETAKO BIDESARIEN ORDAINKETA IZAPIDETZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko ibilgailuak gasolina-zerbitzuguneetan automobilgintzarako erregaiz hornitzea eta autobideetan bidesariagatik ordaindu beharrekoa izapidetzeko zerbitzua ematea.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko ibilgailuak erregaiz hornitzeko eta autobideko bidesariak ordaintzeko, banda magnetikoko kreditu-txartelak edo antzekoak erabiliko dira, eta esleipendunak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko ibilgailu bakoitzaren eskura jarri beharko ditu.

2.- HORNITU BEHARREKO ERREGAIEN ZEHAZTAPENAK

Hornitu beharreko produktuak une oro egokituko dira urtarrilaren 31ko 61/2006 Errege Dekretuak (gasolinen, gasolioen, fuel-olioen eta petrolioaren gas likidotuen zehaztapenak zehaztu eta bioerregai jakin batzuen erabilera arautu duenak) eta irailaren 3ko 1088/2010 Errege Dekretuak (aurrekoa aldatu duenak) eta indarrean dauden gainerako legezko zehaztapenek ezarritako zehaztapen teknikoetara, bai eta hornidura horiek arautu dituen indarreko araudi osora ere, EBkoarekin bat etorriz.

Hornitu beharreko erregaia honako hau izango da:

- Berunik gabeko gasolina
- Automobilgintzako gasolioa

Lizitatzaileek zenbatetsi dezaten, 2025. urtean gasolinaren kontsumoa honako hau izan dela jasota utziko da:

Guztira 56.267,97 litroko kontsumoa:

- 2.782,97 litro berunik gabeko gasolinarako
- 53.055,21 litro automobilgintzako gasoliorako
- 429,79 litro petrolio-gas likidoturako

3.- AUTOBIDEKO BIDESARIEN ZEHAZTAPENAK

Lizitatzaileek zenbatetsi dezaten, 2025. urtean bidesarien kopurua eta zenbatekoa honako hau izan dela jasota utziko da:

- Bidesarien kopurua: 3.966
- Zenbatekoa: 13.483,06 euro

2025ean, Ur Partzuergoak 131 ibilgailuko flota izan du, eta denei eman zaie zerbitzua.

4.- HORNIDURA GAUZATZEKO BALDINTZAK

Enpresa esleipendunak produktuen kalitateari, garraioari eta manipulazioari, laneko segurtasunari eta higieneari eta ingurumenaren babesari buruzko araudi guztia beteko du, bai eta zerbitzuguneei aplikatu beharreko baldintzak eta araudia ere.

Hornitu beharreko produktuak gasolina-zerbitzuguneetara oro har kontsumitzeko bidaltzen diren berberak izango dira, eta jendeari normaltasunez saltzea ahalbidetzen duten legezko arau edo manu espezifikoak beteko dira.

Enpresa esleipendunak erregaien hornidura ziurtatuko du, eta ezin izango du alegatu kontratua indarrean dagoen bitartean eskainitako produktuetako bat ere falta dela, ez eta greba-egoeretan, lan-gatazketan edo beste edozein gatazkatan ere.

Enpresa esleipendunak, gutxienez, egunean 24 orduko zerbitzua bermatu beharko du, etenik gabe, urtean 365 egunez, gasolina-zerbitzugune batean behintzat, zeina 6.000 metro baino gutxiagoko erradioan egon beharko baita, Galindoko araztegiko sarreratik zenbatzen hasita.

Halaber, esleipendunak gasolina-zerbitzuguneak eduki beharko ditu Bizkaiko eskualde hauetan:

Arratia-Zornotza: Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide, Zeanuri, Zornotza

Bilbo: Bilbo

Busturialdea: Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gautegiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz, Sukarrieta

Durangaldea: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Zaldibar

Enkarterriak: Alonsotegi, Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Gueñes, Karrantza Harana, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz, Zalla

Ezkerraldea: Abanto-Zierbena, Barakaldo, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trapagaran, Zierbena

Lea-Artibai: Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Ondarroa, Ziortza-Bolibar, Gizaburuaga

Nerbioi-Ibaizabal: Arakaldo, Arrrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Urduña, Orozko, Zaratamo, Zeberio, Ugao-Miraballes

Txorierri: Derio, Erandio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika, Zamudio

Uribekosta-Mungialdea: Arrieta, Barrika, Bakio, Berango, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Getxo, Gorliz, Laukiz, Leioa, Lemoiz, Maruri-Jatabe, Meñaka, Mungia, Plentzia, Sopela, Urduliz

Alderdi hori ez egiaztatzea eskaintza ezesteko arrazoia izango da.

Kontratu honen ondoreetarako, gasolina-zerbitzugunetzat joko da gutxienez 95 oktanoko gasolina-hornigailu bat eta automobilgintzako gasolio-hornigailu arrunt bat duena, eta 3. kategoriako ibilgailuentzat irisgarria izan beharko du.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak proposatu ahal izango du bere produktuetan aurrerabide tekniko berriak txertatzea edo hornidura modua hobetzea, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko ibilgailuei aplikatu ahal izateko, kontratua aldatzea edo kostu gehigarria eragin gabe.

5.- ERREGAIZ HORNITZEKO SISTEMA ETA BIDESARIAK ORDAINTZEKO ZERBITZUA

Erakunde esleipendunak proposatutako gasolina-zerbitzuguneen sarearen bidez hornituko da erregaiz.

Erregaiz hornitzea eta autobideetan bidesaria izapidetzeko zerbitzua eta dagokion ordainketa, oro har, BANDA MAGNETIKOKO KREDITU-TXARTELAK EDO ANTZEKOAK erabiliz egingo dira.

Ur Partzuergoko Kontuhartzailetza Sailak txartel bat eskatuko dio esleipendun suertatzen den enpresari Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko ibilgailu bakoitzeko. Txartel horiek enpresa esleipendunaren jabetzapekoak izango dira, eta enpresak berak hartuko du kostua bere gain.

Txartela galduz, lapurtuz edo hondatuz gero, enpresa esleipendunak berriro jarriko du txartela, Partzuergoari inolako kosturik eragin gabe. Gorabehera horiei erantzuteko, 24 orduko zerbitzua eduki beharko du.

Txarteltzat joko da enpresa esleipendunaren gasolina-zerbitzuguneetan erregaia erosteko eta autobideko bidesariak ordaintzeko balio duen kreditu-txartela, banda magnetikokoa edo antzekoa.

Txartela ezaugarri hauen eredurakoa izan beharko da:

- Indarrean dauden arauen arabera egingo da, diseinu eta irudi egokiarekin eta faltsutzeko zailtasun nahikoarekin.
- Ibilgailu bakoitzerako bakarra eta kodifikatuta egongo da, Kontuhartzailetza Arloak hala erabakitzen duenean izan ezik, eta ezingo da erabili depositua erregaiz betetzeko ez den beste ordainketa edo helburu batzuetarako.
- Honako datu hauek bilduko ditu: Konpainia hornitzailea, txartelaren zenbakia, iraungitze-data, baimendutako ibilgailuaren matrikula eta ibilgailuaren erregai mota.
- Enpresa esleipendunaren hornidura-sareko edozein gasolina-zerbitzugunetarako balioko du.
- Hornitu beharreko erregai mota eta depositua betetzen den aldi bakoitzeko zenbatekoaren muga adieraziko ditu, txartelaren banda magnetikoaren zerbitzu-kodetik.

Depositua betetzeko txartel magnetikoa erabiltzen den aldi bakoitzean, kasuko produktuaren tiketaren bi kopia egingo ditu gasolina-zerbitzuguneak, bertan datu hauek ageri direlarik: konpainia hornitzailea, sozietatearen izena, IFK eta gasolina-zerbitzugunearen helbidea, erabilitako txartelaren zenbakia, horniketaren data eta ordua, produktu mota eta kantitatea litrotan, litroaren prezioa, guztizko zenbatekoa, baldintza bereziak (halakorik badago, adibidez: deskontuak, promozioak, eta abar), ibilgailuaren matrikula, une horretako kilometrajea. Tiket horren ale bat ibilgailuaren gidariaren esku geratuko da, bestea zerbitzugune hornitzailean bertan, eta bietan azaldu beharko da saltzailearen eta depositua betetzen duen funtzionarioaren sinadura.

Enpresa esleipenduna behartuta dago beti egiaztatzera depositua betetzea eskatzen duen ibilgailuaren matrikula eta txartelarena bat datozela.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, kontratua garatzen den bitartean, aldatu ahal izango ditu txarteletan eta tiketetan sartu beharreko datuak, enpresa esleipendunarekin aldez aurretik adostuta.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak enpresa esleipendunari jakinaraziko dizkio ibilgailuei alta emateagatiko txartel berrien eskaerak, eta, hala badagokio, ibilgailuaren bajagatik edo txartela galtzeagatik/lapurtzeagatik horniketan izandako bajak.

6.- HORNIKETAREN ETA BIDESARIAK ORDAINTZEKO ZERBITZUAREN FAKTURAZIOA

Beti fakturatuko da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta haren mendeko erakundeei atxikitako ibilgailuek depositua betetzeko erabilitako erregaiaren arabera, eta eskainitako deskontuak nahiz egindako bidesariak adieraziko dira.

Esleipendunak, hilero, faktura bat egin beharko dio formatu elektronikoan Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, egindako erregai-horniketa eta bidesari guztiengatik. Faktura hori Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari bidali beharko dio faktura elektronikoko plataforma baten bidez edo Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren atarian erantsiz: https://www.consorciodeaguas.eus/eu/.

Faktura bidali aurretik, banda magnetikoko txartel bakoitzarekin depositua betetzeko eragiketen laburpen aiutuak eskuratuko dituzte, datu hauek bertan jasota: Konpainia hornitzailea, sozietatearen izena, IFK eta gasolina-zerbitzugunearen helbidea, erabilitako txartelaren zenbakia, horniketaren data eta ordua, produktu mota eta kantitatea litrotan, litroaren prezioa, guztizko zenbatekoa, baldintza bereziak (halakorik badago, adibidez: deskontuak, promozioak, eta abar), eta depositua bete duen ibilgailuaren matrikula eta kilometrajea.

Laburpen horien osagarri gisa, hilero entregatuko diote Kontuhartzailetza Arloari datuoi buruzko behar adina informazio bilduta duen euskarri informatiko bat, edo adierazitako informazioa eskaintzeko gai den sistema informatiko baterako sarbidea emango dute, kode konfidentzial baten bidez, inolako kostu gehigarririk gabe. Aipatutako Kontuhartzailetza Arloak emango ditu formatua eta beharrezko den beste edozein datu.

Enpresa esleipendunak behar den informazio guztia helarazi beharko die Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta erakundeei, ibilgailuek depositua betetzen duten aldi bakoitza erabat kontrolpean eduki ahal izateko.

Faktura bakoitzarekin batera gastua eragin duten ibilgailuen zerrenda joango da, dagokion garaian depositua bete den aldiak zerrendatuz.

7.- ERREGAIAREN KALITATEA ETA MANIPULAZIOA

Esleipendunak produktuen kalitateari, garraioari eta manipulazioari, laneko segurtasunari eta higieneari eta ingurumenaren babesari buruzko araudi guztia beteko du.

Hornitu beharreko produktuak une oro egokituko dira urtarrilaren 31ko 61/2006 Errege Dekretuak (gasolinen, gasolioen, fuel-olioen eta petrolioaren gas likidotuen zehaztapenak zehaztu eta bioerregai jakin batzuen erabilera arautu duenak) eta irailaren 3ko 1088/2010 Errege Dekretuak (aurrekoa aldatu duenak) eta indarrean dauden gainerako legezko zehaztapenek ezarritako zehaztapen teknikoetara, bai eta hornidura horiek arautu dituen indarreko araudi osora ere, EBkoarekin bat etorriz.